

Alorrek,
ezohizko
kolore berdea
ematen diote
Bardeei.

Piztizaleon berriak:

MARTXOA

Migel Mari Elozegi*

Eguna aski luzatu du eta aspaldiko partez, eguzkiaren berotasunaz gozatzeko aukera

izan dugu gaur. Goialdeko elurrak azkar asko urtzen ari dira eta ibaien igoera nabarmena da. Bide-bazterrak San Jose lorez bete dira, zenbait zuhaitz loretan daude eta beste askoren kimuak ere lehertzeaz ditugu. Etxeko leihotik nekazariak baratzetako belarrak kentzen, ongarritzen eta goldeatzen ikus ditzaket eta etxe aurreko lizarran, zozo batek jo eta ke abesteari ekin dio. Zer adierazten ote dute zantzu hauek guztiek?

Bai horixe, jaun-andreok, udaberria! Animalia guztiak, gizakia barne, txorutzen diren sasoia... eroaldia!

Igelak erotuta

Atzo euri-jasa latza bota zuen Arballetako basoan eta gaur bide-bazterreko putzuak, inguru guztietatik etorritako baso-igel gorriak bete dira. Uretan sekulako ikuskizuna dugu: bata bestearen gainera igotako igelak, emeak harrapatzeko lehian ari diren arrak, eta tarteka, eme berari sutsuki lotutako lau eta bost ar. Dagoeneko, ehundaka arrautz dituzten mordoiloak ageri dira han-hemenka eta okerrik ez bada, egun batzuen buruan putzua zapaburuz beteta egongo da. Zenbait lekutan baso-igel gorrien ugalketa joan den urtearen bukaeran hasi bazen ere, erruketa gehienak aurtengo lehen bi hilabeteetan eman dira. Dena den, Irati eta Pirinioak aldeko goiko mendietan, garai honetan erruten dute eta atzoko euri-jasa epelaren ondoren, festa handia egongo

da gaur. Baso-igel gorriak bezala, uhandre palmatuak, txantxikuak, eta beste anfibio batzuk ere ugalketa-lanetan buru-belarri sartuta daude.

Baso-igel gorriek ugalketarekin jarraitzen dute.



M.M. Elozegi

M.M. Elozegi



Azkeneko elurrak azkar urtu direnez, ibai eta erreken goraldia nabarmena da. Argazkian, Urederra.

Eguzkitan gozo-gozo

Gaurkoa bezalako egun epel eta polit baten zain zeuden neguan lurpean ezkutaturiko sugandila, musker eta sugeak. Gaurkoan, termometroak gora egin du eta animalia hauetariko asko eguzkitan etzan dira gozo-gozo. Gehienak hibernaziotik atera berriak direnez, moteldurik eta erdilo ditugu baina eguraldiak honela jarraitzen badu laster suspertuko dira. Ikusitako narrastien artean, masailak eta zintzurralde urdin biziko musker berdeak ikusi ditu-

Aspaldiko partez, intsektuak, sugeak, sugandilak eta abar ikusten hasiko gara. Argazkian, musker berdea.

M.M. Elosegi



gu, hauek ere araldian sartzen hasi baitira. Hortaz, laster hasiko dira arrak lehiari emeekin parekatu ahal izateko.

Kontrapasa hasi da

Beti bezain zalapartatsu, bart gauean antzarak somatu ditugu herri gainean. Kontrapasa garaia dugu eta hegazti askori kumatze-lurraldera itzultzeko garaia iritsi zaie. Eguraldi ona egitekotan interesgarria izan daiteke Ondarru, Mutriku, Orio eta orokorrean kostaldera joatea, egun batzuetako ikuskizuna zoragarria izan daiteke eta; goiz polit batean honela, milaka txonta, karnaba, buztanikara, uso eta abar ikus ditzakegu. Egunak aurrera egin ahala berriz, patxadatsu eta dotore, miruak, mirotzak eta beste hainbat harri-erdi-espezie pasa daitezke. Gauean azkenik, ilargiari begira txoriak ikusten, edota hauen kantuen entzuten saia gintezke pasea antzemateko.

Kostaldean ez ezik, kontrapasa beste leku askotan ere soma liteke, baina normalean ez da pasa bezain nabaria izaten. Dirudienez, hegaztiak azkarrago egiten dute kumatze-lurralderako bidaia eta udazkenean lepo batzuetan kontzentrazio bikainak dauden bezala, udaberrian fronte zabalagoan mugitzen dira eta migrazioa ez da hain ikusgarri gertatzen.


Hilabete honen bukaeratik aurrera itzuliko zaizkigun hegaztien artean, ezagun eta maitatuenetarikoa diren enarak ditugu. Hegalari bizkor eta alai hauek hainbat herritan urtero-urtero egun jakinetan agertzeko gaitasun harrigarria dute.

Txori-kantak nonahi

Aurreko hilabeteetako isilaldi goibelaren ondoren txoriak berriro ere txorrotxioka ditugu. Kantuaren bidez, ar gehienak lurraldea aldarrikatu eta emeak erakarri nahian dabilta. Izan ere, txori gehienentzat ezinbestekoa da lurralde bat lortzea baldin eta ugaltu nahi badute, eta beste espeziekideren baten kantua somatu ezker, lurraldetik botatzen saiatuko dira. Migratzaile diren paseriforme txiki gehienek kasuan, neguko eskualdetik iristen diren lehenak arrak dira eta berehala kantari hasten dira, emeak agertu orduko lurralde egokienak eskuratzearen. Txori batzuk kantua erabiltzen duten bezala, beste batzuk kantuen ikusizko baliokiak ere erabiltzen dituzte. Honela bada, hegazti askok mugimendu eta dantza bereziak erabili ditzakete lurraldeari eutsi eta emeak bertara gonbidatzeko.

Sexua edozein kaletan

Udaberriko eroaldia edozein kaletan somatzeko modukoa da. Beste hainbat espezieri bezala, txolarreei ere araldian sartzeko tenorea iritsi zaie eta lotsagabe samarrak direnez, erraza da hauen eztei-jolasak ikustea. Honetarako nahikoa da edozein parketan ogi-apur batzuk botatzea eta



M.M. Elozegi



Ondarruko inguruak martxoan. Honelako egun politetan hegazti ugari ikus daiteke Kontrapasan.

M.M. Elozegi



Kontrapasa-garaia dugu. Argazkiko antzarak iparraldera doaz. Iristen direnen artean, berriz, enarak, miru-beltzak eta argi-oilarrak ditugu.

txolarre-talde bat biltzea. Emea ondotik pasa orduko, txolarre arra harrotzen ikusiko dugu. Puztuta, hegalak zintzilikatu, eta burua eta buztana zerurantz altxako ditu "damaren" aurrean. Tentsioa igotzeko, emeak mokokada lizuna emango dio arrari saihetsean, eta eroaldia kutsakorra balitz bezala, inguruko arrak ere sutan hurbilduko dira. Emeak orduantxe hegan egingo du ar guztiek atzetik dituelarik, festak beste nonbait jarrai dezan. Kurrr-kurrr-kutukurrr. Txolarreak ez ezik, usoak ere ogi-apurretara hurbildu zaizkigu. Hauek ere bero-bero ditugu eta arrak emeen aurrean lepoa puztuta abesten eta buztana zabaldu eta biraka dantzaz hasiak dira. Iruñeko Gaztelu enparantza, Bilboko Arenal, edo kaleko uso ugari dagoen beste edozein gune, uso-festak ikusteko egokia izan daiteke.

Amiamoko edo zikoina zuriei begira

Karraka-ka-ka-ka-ka-ka. Zikoina jauna burua atzerantz kulunkatu eta mikoa astinduz zikoina ande-

rea maitekiro agurtzen ari da. Bigarren honek halaber, antzeko erantzuna eman dio. Hilabete baino gehiago da amiamokoak Afrikatik itzuli zirela eta denborarik galdu gabe, behin eta berriz habira adarrak eraman eta iazko egitura txukuntzeari ekin diote. Ikusizun eder hau, Gasteiz ondoko Gamarran izan dezakegu. Espezieak urte txarrak pasa zituen arren, azken urteotan amiamoko zurien populazioa gora egiten ari da eta 1997an Nafarroan 185 habi egin zituzten eta 16.000tik gora Espainiar Estatuan. Ospe handiko habia aipatzearren, Gasteiz aldean dagoena aipatu dugu baina Euskal Herrian habi gehien dituen herria, 40 baino gehiagorekin, Tuter da. Hauxe da beraz, Tuter eta Nafarroako Erribera alegia, gure lurraldean zikoinak ikusteko inguru egokiena.

Hartz-kumeak bazkatzen

Pirinioetan dugun berriemaileak esan digunez, goi haiek elurtuta daude, eta ofizialki udaberrian sartu garen arren, hango mendietan inondik ere ez. Hartzulo ba-

tean ordea, bi hartz-kume bero-bero daude amaren besoetan. Duela hilabete jai zirenean, 350 gramo besterik ez zuten baina amaren esnea gogoz edanda honetzkerok zertxobait kozkortu dira. Dagoeneko hartza itxurako bi pilota iletsu bihurtu dira, baina oraindik ez dira zuloaren babesetik ezertarako atera, eta datorren hilera arte edo ez dute egingo. Ordurarte ongi segi!



* Biologoa

M.M. Elozegi



Amiamoko zuriak lan eta lan ari dira habia txukuntzen. Euskal Herriko hegoaldek populazioa hazten ari da..